

EAEko txotxongilo eta objektu antzerki  
konpainia eta profesionalen  
Direktorioa

## EAEko txotxongilo eta objektu antzerki konpainia eta profesionalen Direktorioa

Pagoa Hezi Elkartearen proiektua.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak diruz lagundutako proiektua.

Ekoizpena: Pagoa Hezi Elkartea 2022

Datu-bilketa eta diseinua: María Ramírez Luengo

Itzulpena: Myriam Garzia



BILBOKO  
NAZIOARTEKO  
TXOTXONGILO  
JAIALDIA

FESTIVAL  
INTERNACIONAL  
DE TÍTERES DE  
BILBAO



# Aurkezpena

---

Txotxongilo eta objektu bizidunen artea, gizarte guztien funtsezko adierazpidea da, nahiz eta garai eta leku desberdinetan gertatu. Bertan biltzen dira tradizioa eta garaikidetasuna; plastikotasuna eta arlo eszenikoa; tokikotasuna zein unibertsaltasuna.

Txotxongilo eta objektu antzerkiaren ezaugarrietako bat lengoaien aniztasuna da, bai proposamen artistikoetan zein antolaketa eta banaketa formetan, edota baita ere, zuzentzen den ikus-entzuleei dagokionez: haurrak, familiak zein helduak. Aniztasun horri esker, arte eszenikoen adar hau beste diziplina batzuekin erraz nahas daiteke. Gaur egun hainbat proposamen aurki daitezke, bai proiektu berritzaileak zein tradizioari lotutakoak. Hala ere, aniztasun horren barruan, badira sektorea defini dezaketzen zenbait ezaugarri eta interes partekatu, helburu zein behar amankomunak aurkitzeko aukera ematen dutenak.

Txotxongilo eta objektu antzerkia Euskal Herriko kulturaren oinarrizko elementua da eta pisu jakina du bertan. Gure lurraldean badira txotxongilo eta objektuen antzerkiko lau jaialdi, estatu mailan garrantzizkoak: TITIRIJAI-Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia, BILBAOTX-Bilboko Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia, Bergarako Helduentzako Nazioarteko Txotxongiloen Mostra eta Sestaoko Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia; eta bi gune sektoreari eskainiak: Tolosako TOPIC eta Bilboko TXOTENA GUNEA.

Euskal Herriko txotxongilo eta objektu antzerki konpainia eta profesionalen direktorio honen sorrera behar batetik abiatzen da: EAEko eremuan dabiltzan eragileen lekukotasuna izatea, ikuskizunen sorkuntzan dabiltzan konpainiak eta profesionalak bilduko dituen. Proiektu honen xede nagusia sektorea indartzea da.

Helburu honekin, Pagoa Hezi Elkartea, BILBAOTX-Bilboko Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiaren antolatzaileak mapeoa eta direktorioaren sorrera hartu du bere gain, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren laguntzarekin. Horretarako, aipatutako eragileen ikerketa burutu da; datu bilketa egin da, telefono dei, mezu elektronikoko eta bilera bidez; eta sare sozialetan iragarki sektorizatuen kanpaina egin da.

Espero dugu ahalegin hori baliogarria izatea txotxongilo eta objektuen antzerkiarekin lan egin eta gozatzen dugunontzat.

# Konpainiak eta profesionalak



# Akerberri



webgunea eraikitzen  
akerberri@gmail.com  
664 165 239  
BIZKAIA

 @aker\_berri

 @Akerberri Cia.

Aktibo dauden ikuskizunak:

- Skuld, lo que es necesario que ocurra (2022)
- Edurne y Peio (2022)

Akerberri antzerki fisikoa eta musika lantzen dituen konpainia sortuberria da, 2022an sortua. Diziplina anitzeko konpainia honek bere bi pasioak eta lanbideak, arte eszenikoak eta garapen pertsonala, eszenan bildu nahi ditu. Ukitu berezia duten ikuskizunetan zuzeneko musikarekin jolasten dute, modu honetan publikoa laguntzeko eta helduak zein haurrak hausnarazi kontzientzia har dezaten.

# Anita Maravillas Teatro



[anitamaravillasteatro.blogspot.com](http://anitamaravillasteatro.blogspot.com)

[anitamaravillasteatro@gmail.com](mailto:anitamaravillasteatro@gmail.com)

605 751 145

BIZKAIA

 [@anitamaravillasteatro](https://www.instagram.com/anitamaravillasteatro)

 [@Anita Maravillas Teatro](https://www.facebook.com/AnitaMaravillasTeatro)

 [anita maravillas cana](https://www.youtube.com/anitamavillascana)

Aktibo dauden ikuskizunak:

- Kotondarrak (2020)
- Pintto Pintto (2015).(Berrestreinaldia, 2022an)
- Andereño (2023)

Anita Maravillas txotxongilo konpainia bat da, bete betean. Bartzelonako hastapenetatik, formazioa eta ikerketa garaitik, Euskal Herrian sortu eta ekoiztutako ikuskizunetara. Zornotza Aretoarekin elkarlan estua darama, hala nola Portal 71 ekoiztetxearekin. 2015ean Ivan Alonsok, zuzendaritza eta ekoizpenean, eta Ion Chavezek, argiztapenean, osatu dute konpainia. 2020an Maren Basterretxea txotxongilolaria eta aktorea trebatu dute eta konpainian sartu zen. Portal 71ko bulegoan, Rocío Pindado banaketaz arduratzen da. Konpainia honen sorkuntza prozesu guztietan, funtesezkoa da Valentina Raposoren txotxongilo eraikuntzarako tailerra, bertan sortzen baitira pertsonaiak eta gauza txikiena ere kontuan hartzen da.

# Ameztu Antzerkia



[www.ameztu.net](http://www.ameztu.net)

[info@ameztu.net](mailto:info@ameztu.net)

685 149 016

ARABA



@Ameztu antzerkia



@Ameztu Antzerkia



Ameztu

Aktibo dauden ikuskizunak:

- Organik (2018)
- Euskaraz dantzatu nahi dugu (2019)
- Gag Street Boys (2020)
- Ipurbeltz (2022)




Ameztu antzerkia: 2006an sortutako antzerki taldea da. Orduetik ikuskizun ugari egin dituzte Euskal Herri zein estatuko antzoki, enparantza, areto eta kaleetan. Hainbat feria zein jaialditan gonbidatuta izan da, hala nola: Tarrega, FETEN, Kaldearte (Publikoaren Saria), Araiako Umore Jaialdia, Leioako Umore Azoka, Festival Internacional de títeres de Sevilla...besteak beste.



# Arriera



[www.arriera.eu](http://www.arriera.eu)  
[info@arriera.eu](mailto:info@arriera.eu)  
+34 636 713 553  
BIZKAIA

 @arrieraescena  
 @arrieraescena  
 @arriera

Aktibo dauden ikuskizunak:


- EDEN (2020)
- Café Cantante AMARGURA Kabaret (2021)

Arriera diziplina anitzeko konpainia da, collage antzerkia lantzen duena, bidegurutzetan sortzen direlako ikuspegi berrienak. Konpainia honen ikuskizunetan paperezko antzerkia, txotxongilo eta objektuak, dokumentu-antzerkia, musika eta dantza, sorkuntza plastikoa eta poesia bisuala biltzen dira. Publiko handia zein txikira zuzentzen dira, begi bat teleskopioan eta bestea mikroskopian jartzea gustoko dutelako. Eta bazterretik ari dira istorioen sorkuntzan, konturatu baitira bideko harrien artean desberdinak direnak horiek harribitxiak direla.

# Aura Teatro



www.aurateatro.com  
aurateatro@gmail.com  
644 154 985  
BIZKAIA





 @aurateatro

Aura Teatroaren ezaugarri nabarmenenak, euren ikuskizunen aniztasuna eta bere artisten moldakortasuna dira. Ez dira aktore soilak baizik eta, musikariak, dantzariak edota diseinatzaileak izan daitezke. 2002an sortu zen, aktore batzuk bildu zirelarik bere lehen antzerki proiektua aurrera ateratzeko, *El Zoo de Cristal*. Honen ostean, *El Bolso Amarillo* ikuskizunarekin jauzia egin zuten, hurrei zuzendutako txotxongilo eta aktore ikuskizun bat, non zuzenean jotzen ziren jatorrizko abestiak eta dantza eszenak tartekatzen ziren. Ikuskizun honekin Murcia-ko Txotxongilo Jaialdian egon ziren 2010ean eta baita ere, Bilboko Campos Eliseos antzokiko Txotxongilo lgandeak programaren baitan 2013 eta 2014an, besteak beste.

# Bego Alabazan



www.alabazan.net  
bego@alabazan.net  
637 302 007  
BIZKAIA

 @begoalabazan  
 @begona.alabazan  
 @BegoAlabazan  
 AlabazanBilbao

Aktibo dauden ikuskizunak:

- Hansel y Grettel (2012)
- Jhonny Cold Feet (2014)
- Titiritesa (2015)

2012an bere Itzal Itzelen lehen muntaia izan zen *Hansel eta Gretel* bideratu zuenetik, itzal txinatarren aspaldiko teknika, xume eta hain magikoaren xarmak harrapatuta geratu zen. Apurka, siluetak egitera jolasten, moldatzen, koloreztatzen, argi egokienak zeintzuk ziren erabakitzen, irakurtzen eta besteen eskarmentuetan informazioa bilatzen, bere ideiak argitu zituen hizkuntza berezi honetan eroso eta kapaz sentitu arte, beste bi muntaia antolatu ahal izateko: *Jhonny Cold Feet* eta *Titiritesa*. Espero du oraindik luze jolasten jarraitu ahal izatea argi eta itzalen mundu magiko honetan.

# Behibi's



www.behibis.com  
info@behibis.com  
629 684 140  
GIPUZKOA

Aktibo dauden ikuskizunak:


- Rosi Erosi (2006)
- Den dena niretzat (2007)
- Murren bidaia (2008)
- No es fácil (2010)
- Buelbaka (2013)
- Egunen batean (2016)
- Trabajos de interior (2019)

Konpainia sentimendu sortzaile baten garapen prozezuaren emaitza da, antzerkia egiteko beharrarena, alegia. Pertsona bakarreko ikuskizunak sortzen ditu arte eszenikoetako profesional desberdinen lankidetzari esker: zuzendari, gidoilari, eszenografo, artisau, musikari, tekniko, ekoizle... Bere lanaren inguruan eta emakume bat antzerki munduaren barruan txertatzeaz hausnartzen, emakume batentzat antzerkia egiteak zer suposatzen duen, zergatik eta zertarako egiten duten eta ikuslegoari lana, kezka eta jakinmina nola eskeini daitekeen pentsatzen...

# Benetan Be



www.benetanbe.com  
benetanbe@gmail.com  
696 256 925  
BIZKAIA

 @benetanbe

Aktibo dauden ikuskizunak:  
· Batetik Bestera (2022)

Benetan Be, ZUBI deialdiaren bultzadarekin *Inondik Inora* proiektu kuttuna aurrera ateratzako sortu zen ekimena da. Euskaraz antzerkiaren bitartez bizitzan sortzen diren galdera, zirrara, eta beharren aurrean hausnarketarako sormen gunea izateko indarragaz jaio zitzairen. Bere bigarren ikuskizuna, *Porno vs. Afrodita (edo I love #gorkaurbizu)*, ikusle heldu eta oraindik heldu ez direnei zuzendua, pandemiaren erdian, Euskal Herriko bazterrak astindu zituzten bere ergelkeria sexual eta afektiboezikusleekin barrez lehertzen. Orain, hirugarren ikuskizuna aurkezten dizkigute, ostera ere etxeko txikienak helburu duen *Batetik Bestera*. Badoaz!

# Bihar Taldea



[www.bihartaldea.com](http://www.bihartaldea.com)

[bihartaldea@gmail.com](mailto:bihartaldea@gmail.com)

647 093 874

BIZKAIA

 @ainhoae72

 @Bihar taldea.Títeres/txotxongiloak

Aktibo dauden ikuskizunak:

- Lagunekin Baratzean (1995), · Kli kla birzikla (1998), · Ipuin magikoak (2000), · Karolino, printzesa eta dragoiaren burua (2007),
- Karolino eta printzesaren bahiketa (2010),
- Adarbakar urdina (1988) (Berrestreinaldia 2004an), · Harritzeko ipuinak (2007), · Etxeko kontuak (2020), · Amets pirata (2022)

Bihar taldeak 1972an ekin zion bere jarduerari, aktore antzerkian. Txotxongiloen mundo zoragarrian hasi zuen bere ibilbidea 1979an. Hasieran eskularru eta hagaxkakako txotxongiloak erabiliz. Taldeak bere estiloa sortu du, arreta handiz eta estetika atseginez egindako mota guztietako eszenografia eta txotxongiloekin. Antzestu du Arriaga Antzokian, Guggenheimen edo Euskalduna Jauregian, ospe handiko txotxongilo-jaialdietan parte hartu du, Euskal Herriko ia udalerrri guztietan aritu da, ia autonomia-erkidego guztietan.

# Corrado Masacci



corradoymasmarionet@hotmail.com

616 561 878

GIPUZKOA

Aktibo dauden ikuskizunak:

· *Moviendo marionetas* (2000)

Corrado Masacci, Ravenna (Italia), 1982tik Euskal Herrian bizi da. 1979tik marioneta sortzaile eta egilea da. Urte honetan *Flip y Roby* marioneta antzerki konpainia sortu zuen eta konpainiak 1992ra arte iraun zuen. Marioneta ikastaroak eskeini ditu bai haur zein helduentzat. EHUko Leioako Campuseko Marioneta Gelako arduraduna izan zen 1999 eta 2007 urteen artean. 1990ko abenduan eta Nazioarteko Bilboko Txotxongilo Jaialdiaren baitan, bere lehen erakusketa didaktikoa eta mugikorra inaguratu zuen. Orduetik lan honetan dihardu, marioneten mundua ezagutarazteko erakusketa didaktikoak egiten, publiko orokorrari baina bereziki haurrei zuzenduak.



# Dejabu Panpin Laborategia





[www.dejabu.eus](http://www.dejabu.eus)

[info@dejabu.eus](mailto:info@dejabu.eus)

675 006 680

GIPUZKOA

 @dejabu\_konpainia

 @Dejabu antzerki konpainia

Aktibo dauden ikuskizunak:

- Linbo Planeta (2017)
- Naon Tokin (2021)



Poetikoa, garaikidea eta hauskorra den antzerkia interesatzen zaie. Elkartzeko gonbitea egiten duena. Biziraupen ekintza bat da beraiantzat. 2001.ean sortu zuten Dejabu. Ondoren LISPA eta London International Puppet School-en graduatu ziren (UK). Orduan hasi zen benetako abentura, bere bidea egitera ausartu zirenean. Ainara Gurrutxaga, Urko Redondo eta Miren Alcalá dira konpainiako kideak. Egitasmo bakoitzean sortzaile talde zabala izaten dute ondoan. Proiektu bakoitzean bilatzeko eta galtzeko denbora hartzen dute, jarrera erradikala gaur egun. Ametsetan agertzen zaizkien irudien enigma argitu nahian hasten dira lanean gehienetan. Objektuei esker gorputzak eta munduak ekartzen dituzte espaziora eta kaosean murgiltzen dira.



# El Tenderete, Títeres y Titeretas



www.eltenderete.com  
titereseltenderete@gmx.com  
696 383 315 / 639 253 239  
BIZKAIA

 @Tenderete Titeretak  
 Tenderete Titeretak

Aktibo dauden ikuskizunak:

- Menudencias (2005)
- Hamaika Gatazka (2010)
- Gazapoen Istorioak (2013)
- Titereska (2015)
- Basoko Ipuin Ttipiak (2019)

Duela 30 urte Bilbon, El Tenderete taldeak bere teatrinoa filmatzeari ekin zionean, txotxongiloak egiteko tailer bat ere finkatu zuen, enkarguetarako zein muntaia propioetarako, bai eta berariazko testu dramatikoak ikertzeko eta idazteko literatura-tailer bat ere. Euskarazko eta gaztelaniazko dozena bat ikuskizun baino gehiagorekin eta estetika bereziarekin, mota guztietako espazioetan aritu dira. Eta, batez ere, kaleaberreskuratu dute txotxongiloentzat, zaletasuna sortuz eta sustatuz askotariko ikusleen artean. Eta jarraitzen dute, 6 lustro eta pandemia baten ondoren.

# Felipe Garduño



bihariker@gmail.com  
688 899 215  
BIZKAIA

Aktibo dauden ikuskizunak:

- Salvatore Gato napolitarrarekin TOPICen Udako Eskolan ikastaro bat egin ondoren, oso noizean behin Puncinelarekin emanaldiren bat egiten du, ez profesional gisa, txotxongilozale gisa baizik.

Felipe Garduño, 1972an antzerki independentearen eremuan sortutako Bihar Taldearen kofundatzailea da. Baina 1979tik marioneten munduan murgilduta dabilta. Ordutik, konpainiak 40tik gora ikuskizun, 5.000tik gora emanaldi, jaialdi handietan parte hartu eta kanpainiak egin ditu. Baita ere, antzoki handi eta egitarau garrantzitsuetan egon dira. Hala ere, 2013an erretreta hartu eta Ainhoa Etxebarriak aurrera egingo du konpainia zaharrarekin. Urte luze hauetan gure lurraldean txotxongilo antzerkiaren hobekuntza eta berreskurapenaren alde egindako lan itzelaren ondoren. Azken 30 urte hauetan euskaraz izan dira bere ikuskizun guztiak.

# GANSO&Cia




[www.ganso.info](http://www.ganso.info)

[info@ganso.info](mailto:info@ganso.info)

622 051 352

BIZKAIA

 @gansocia

 @GANSOCIA

 @GANSOclown

 @GANSOCia

Aktibo dauden ikuskizunak:


- Babo Royal (2014)
- Panoli Kabareta (2020)
- Alpha (2020)
- Muna (2022)

GANSO&Cia Durangon (Bizkaia) kokatutako Antzerki konpainia da, Gorka Ganso eta Cecilia Paganiniz osotuta. Proiektu bakoitzean lankidetzarik onenak bilatzen dituzte bidaian lagun diezaieten, musikan, antzepean, argiztapen... 2008. urtetik kale- eta areto-ikuskizunak sortzen dituzte, umore fisikoari eta objektuei garrantzi handia ematen dietenak. Zahazki, *Muna*, bere azken estreinaldia, hainbat objektu eta txotxongilo baten bidezko bidaia da.

# Goloka



www.goloka.info  
info@goloka.com  
628 06 61 79  
BIZKAIA

 @goloka

Aktibo dauden ikuskizunak:

- Goloka Park
- Sorginak
- Berpiztuak
- Piratak
- Espaziora
- Loreren ametsak
- Wolingen garatxoa

Goloka taldekideak, kale antzerki eta animazioa lanbidea dute. Arte arlo desberdinetan aritzen ziren lagun batzuk, bestelako antzerki modu bat egiteko gogoarekin elkartu ziren, teknika berriak erabiliz antzerkia edozein motako publikoak eskura ahal izan dadin. Horrela jaio zen Goloka taldea, 1983. urtearen bukaeran, Baso bidean 1, Bilbon, eta ordutik hona haien tailerretik, nagusi zein umeentzako hainbat ikuskizun kaleratu dituzte: kale antzerkia, kalejirak, berbenak; eta edozein motako eskaerak: dekoratuak, panpinak, publizitatea...Ideiak, gidoiak, panpinak, jantziak, dekoratuak... beraiek egiten saiatzen dira, baita beste taldeentzako enkarguak ere. Bukatzeko soilik azaltzea haien helburuak, hasieran bezala, antzerkia bizimodu eta adierazpen moduz hartzea direla.

# Gorakada



[www.gorakada.com](http://www.gorakada.com)


[administracion@gorakada.com](mailto:administracion@gorakada.com)

94 6 21 70 53

BIZKAIA

 @teatrogorakada

 @teatrogorakada

 @teatrogorakada8111

 @teatrogorakada

Aktibo dauden ikuskizunak:

- Zuhaitzak landatzen zituen gizona / El hombre que plantaba árboles (2021)
- Kelonia eta itsasoa / Quelonia y el mar (2023)

Teatro Gorakadaren jatorria 1987koa da. Gorakadan beti saiatu dira antzerki eta hezkuntza munduari estuki lotutako kolaboratzaile talde batez inguratzen. Talde lana, ideien eta proposamenen trukea, eboluzionatzen jarraitzeko baldintza gisa nabarmendu nahi dute. Eztabaida eta hausnarketa talde-lanetik sortzen dira, eta horrek eragin du Gorakadaren ikuskizun desberdinak estilo, erregistro, manipulazio teknika, estetika eta eszenaratze ezberdinetan mugitzea.

# Hortzmuga Teatroa





[www.hortzmuga.com](http://www.hortzmuga.com)


[info@hortzmuga.com](mailto:info@hortzmuga.com)


697 894 074

BIZKAIA

 @hortzmuga\_antzerki

 @hortzmugateatroa

 @hortzmugateatroa

 hortzmugateatroa

Aktibo dauden ikuskizunak:

- Jule (2018)
- Agurea, Urpekaria eta Itsasoa (2023)

Hortzmuga Teatroak istorio original, irudimentsu eta harrigarriak sortzen ditu 1989. urteaz geroztik. Bere lanetan, inguratzen gaituen munduari buruzko begirada kritikoa eta gogoetatsua aurkezten du. Emozioa eta umorea ditu ardatz, baita kontzientziak astintzea, jakin-mina piztea eta ikusleen irudimena areagotzea ere. Kaleko antzerkiaren aldeko apustua irmoa da eta ez ohiko espazioak ere uztartzen ditu. Haietan, hizkuntza propioa garatzeaz eta lengoia zuzena erabiltzeaz gain, publikoarekiko harreman berezia eraiki ohi du. Momentu oro, ikus-entzuleen parte-hartzea bilatzen du. Gainera, familia osoari zuzendutako ikuskizunetan, tamaina ezberdinetakoa objektuak eta txotxongiloak ikertu eta erabiltzen ditu.



# Iñaki Mata




<http://inakimata.blogspot.com>

[inakimata@gmail.com](mailto:inakimata@gmail.com)

655 709 634

GIPUZKOA

 @inaki.matahoz

 @inakimata

Aktibo dauden ikuskizunak:

- BARRERAS (2007)
- WELCOME! (2017)

Antzuolako aktorea, sortzailea eta txotxongilolaria, 1964 (Gipuzkoa). 1987an Taun Taun txotxongilo konpainia sortu eta zuzendu zuen. 1998 eta 2000 urteen artean, Zugarramurdiko Txotxongilo gela iraunkorraren zuzendaritzaz arduratuko da, hala nola *Sorginen Museoaren* proiektuan parte hartuko du. Hasiera hasieratik Taun Taun konpainiaren ekoizpen guztietan parte hartuko du eta 2007an ikerketa propioak lantzen dituen konpainia independente modura aurkeztuko du bere burua. Lan honetatik sortzen da *Barreras*, 20tik gora hirietan erakusti duten hiri eskuhartze proiektua.

# Javi Tirado



javivi\_t@yahoo.es  
665 720 758  
BIZKAIA

Aktibo dauden ikuskizunak:  
· NADA (2018)

Javi Tirado (Santurtzi, 1961). Aktorea, eszenografoa eta marioneta egilea. Tarima, Markeliñe, Porpol, Eme2, Zootrop, Paraíso, Marie de Jongh, Anita Maravillas eta Gorakada bezalako konpaniekin lan egin du, besteak beste. Diego Murcianorekin batera Paparote antzerki konpainia sortu zuen eta, egun, Mar-mar Teatroyen ohiko kolaboratzailea da. HONOFRE saria jaso du, gizonezko interpretazio onenagatik 60 Festival Ibérico de cine de Badajoz 2000 jaialdian eta baita ere eszenografia onenaren saria FETEN jaialdian 2004 eta 2013 urteetan.



# Josu Cámara Izagirre



kukujosu@gmail.com

658 721 840

BIZKAIA

Une honetan erretretan dagoen titiriteroa da, aholkularitza laguntzak egiten ditu bolondres moduan Pagoa Hezi Elkartearen babesean bai konpainiei, norbanakoei eta baita kolaboratzaile bezala Bilboko Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiaren antolakuntzan. Aktibitate profesionala ez izan arren formakuntza zikloetan antolakuntza laguntzailea eta tailerretan partaide ere izaten da.

# Kontakatillu



[www.kontakatillu.eus](http://www.kontakatillu.eus)  
[kontakatillu@gmail.com](mailto:kontakatillu@gmail.com)  
609 273 973  
GIPUZKOA

Mikel Ibarzabal eta Aitor Ormaetxeak 2009. urtean sorturiko txotxongilo taldea da. Bi sortzaileak eskulangintza eta antzerki mundutik datoz eta urteetan zehar beste txotxongilo talde batzuetan ibili ostean, Kontakatillu talde propioa sortzea erabakitzen dute. Txotxongiloen bitartez emozio eta sentimendu desberdinak transmititzea, ikusleari beraiek pasatzen duten bezain ongi pasatu araztea eta denok daukagun barruko umea piztu araztea da taldearen filosofia. Beti ere euskal kultura eta euskararekiko konpromisuarekin.

# Kulunka Teatro



[www.kulunkateatro.com](http://www.kulunkateatro.com)

[info@kulunkateatro.com](mailto:info@kulunkateatro.com)

+34 655 70 13 88

GIPUZKOA

 @kulunkateatro

 @Kulunkateatro

 @kulunkateatro

Aktibo dauden ikuskizunak:

- André & Dorine (2010)
- Solitudes (2015)
- Hegoak (2022)
- Forever (2023)

Kulunka Teatro konpainia 2010ean sortu zuten, Hernanin (Gipuzkoa), Garbiñe Insausti eta José Dault aktoreek. Askotariko hizkuntza eszenikoekin esperimentatzeko grinak eta horiek ikusle mota guztien zerbitzura jartzeak akuilatu zituen taldea sortzeko. Antzerki bizia, oraingoa, konprometitua eta errealitateari lotua. Hamabi urteko ibilbidean, Kulunka Teatrot bide egin du konpainia nagusien artean, eta nazioartean oihartzun azpimarragarriko egitura sendoa da orain. Bere ekoizpenen mila bat emanaldi egin dira 30 herrialdetan, eta gure mugen barruko zein gure mugez haragoko konpainiaren entzutearen eta onarpenaren erakusgarri da haren sari-zerrenda garrantzitsua.

# Laenanaranja



www.kontukantari.eus  
maumakide@gmail.com  
685 753 979  
BIZKAIA

 @kontukantari

 @kontukantari


 \_Laessistens La enana naranja

Aktibo dauden ikuskizunak:

- Kontukantari (2014)
- Kontukantari, Mendian Ibiltari (2017)
- Zimurren artean (Prozesuan, estrenaildia 2024an)

Laenanaranja, titiriteroa bokazioz, Bilbon sortu zen 1999an. Ibilbide honetan, umeei hurbiltzeko biderik aproposena txotxongiloak direla ikusi dute. Bere ibilbidean zehar mahai txotxongiloekin eta objektuekin egindako trilogia nabarmenduko lukete: *Lolo; 215. Eskakizuna, Imundo; Hesi- Puskatzailea* (FETEN, proposamenaren originaltasunari aipamen berezia eta Escena S. XXI, ikuskizun berri onenaren saria), *Ma; Tren Taupadak*. 2014tik aurrera, zuzeneko musikarekin lan egiten hasi ziren, euskal abesti herrikoiak eta garaikideagoak bilduz, musikaren mundua eta txotxongiloak nahastuz. Prozesu horretatik sortzen dira: *Kontukantari, Altzoko Erraldoia* (TOPICek ekoiztako opera), *Kontukantari; Mendian Ibiltari*.

# LaFamiliaInventada



alafamiliainventada@gmail.com

+34 696 628 629

ARABA



@lafamiliainventada

Aktibo dauden ikuskizunak:

- BIOFILIA (2019)
- Viernes de RISaKa (2022)

LaFamiliaInventada pertsona kurioso-kronikoak dira, otzondu gabekoak, asmatutakoartistiumoretsuak eta... Teatroa eta mikroteatroa zentzumen guztiekin, Kutxatxo Magikoak (lambe lambe antzerkia: miniatura antzerki esperientzia pertsona bakarrarentzat) ibilaldi fotoriginalak, ibilitako ipuinak, animazio pertsonalizatuak, ebentoak eta... Ongi etorri familiara!! Lafamiliainventadak bere jakinmina partekatu, erein, ezagutu, iradoki eta probokatzen dituzte enkontruak, bere izaera basatian baitago. Ezustea eta umorea dira bere oinarrizko bazka hazi ahal izateko.

# Maren Basterretxea Iribar



marenaltzalei@gmail.com

688 659 492

BIZKAIA

 @marenaltzalei

 @Maren Altzalei

Aktibo dauden ikuskizunak:

· Igaro (2022)

Maren Basterretxea Iribar. Berriatuarra. 2009an José Uruñuela Dantza Kontserbatorian sartu zen, eta bertan burutu zituen Ikasketa Profesionaletako lehenengo eta bigarren mailak. Bizitzak dantzatik aldendu zuen, eta bide berriak zabaldu zizkion. Horrela, 2016an Dantzertin sartu zen Arte Dramatikoko Ikasketak burutzera. Gaur egun ondorengo ikuskizunetan antzezten du: *Lubaki Lainotsua* (ATX Teatroa); *Kotondarrak* (Anita Maravillas), *Pintto-Pintto* (Anita Maravillas); *Urpekakariak* (Lanku), *Alpistegia* (Lanku).

# Marie de Jongh



[www.mariedejongh.com](http://www.mariedejongh.com)

[mdj.teatroa@gmail.com](mailto:mdj.teatroa@gmail.com)


656 734 500

BIZKAIA

 @mariedejongh

 @mariedejonghteatroa

 <https://twitter.com/MariedeJongh>

 Marie de Jongh

Aktibo dauden ikuskizunak:

- AMOUR (2015)
- IKIMILIKILIKLIK (2020)
- AMA (2022)

Marie de Jongh konpainia publiko guztiarentzat zuzentzen diren ikuskizunetan espezializatua dago. Sorkuntza propioa eta Jokin Oregi konpainiaren egilea eta zuzendariaren sorkuntza dute oinarri. Belaunaldi arteko bokazioduna, Marie de Jonghek bere lanak definitzerakoan “helduentzako haurren antzerkia, haurrentzako helduen antzerkia” egiten dutela dio. Bere ibilbidean nabarmendu dira “gizartearekiko konpromezua, konpainiak lantzen dituen gaietan islatzen baita eta baita ere, estetikoki kalitate handiko lanak direla, non edertasuna eta emozioa nagusi diren”.



# Markeliñe



www.markeline.com

markeline@markeline.com

605 700 284

BIZKAIA

 @markelinecompaniateatro

 @markeline.teatroa

 @Markelinne

Aktibo dauden ikuskizunak:

- La vuelta al mundo en 80 cajas (1998),
- CARBON CLUB (2005), · Andante (2014),
- CRUSOE (2016), · EURIA (Lluvia) (2017),
- Chef Nature (2018), · Psike (2020),
- GANBARA (El desván) (2021),
- Mamut (2022)

Markeliñek oso estilo pertsonalarekin sortzen ditu bere ikuskizunak. Egiteko era horrek, kode eszeniko pertsonala duten sorkuntza lan bitxiak, imajinazioz beteak, eta harrigarriak sortzen dituen talde gisa definitzen du taldea ikusle handien eta txikien aurrean. Eta beti ere antzezleen keinu lanean oinarrituz. Ere bakoitzean, Markeliñek hizkuntza propioa aurkitu du. Objektuei, estetikei eta hizkuntzei buruzko ikerketak aintzatespen garrantzitsuak eman dizkio antzerki munduan. Kanean, espazio handiak erabiliz, gauaren magiaren babespean batzuetan, edo egun argiz besteetan. Musika da emozioen hari gidaria, aurpegi anitz dituzten istorioen bitartez ikus-entzulea erakartzeko. Keinuetan eta ikusmenean oinarritutako hizkuntzaren bilaketa horrek presentzia finkatua eman dio Markeliñeri antzerkiaren panoraman.



# Mar-mar teatro



www.marmarteatro.com  
marmarteatro@gmail.com  
655 71 72 48  
BIZKAIA

 @marmarteatro

Aktibo dauden ikuskizunak:

- Tarzan (2021)
- Arrainak bihotzean (2022)



Mar-Mar Teatro 2021ean sorturiko konpainia da.

Mar-mar teatro diziplina anitzeko talde batek osatzen du, eta bertan aktoreak, zuzendariak, argi eta soinu teknikariak, musikariak, konpositoreak, diseinatzaileak, espazio eszenikoaren sortzaileak, eraikitzaileak, txotxongiloen manipulatzaileak... daude. Talde-sorkuntzan sinesten dute, antzerki-ikuskizunak sortzeko oinarri gisa. Horrela ulertzen dute antzerkia, eta horrela bizi dute. Sortutako lehenengo ikuskizuna *Tarzan* deiturikoa, 2021ean aurkeztu zen Zornotza Aretoan, José C. García-k zuzendua. Durangoko Sorleku beka irabazi eta gero FETEN2022, Mostra de igualada eta Mostra de Alcoi-en ikuskizuna aurkeztu zen. MAX2022 sarietan hautagai izan zen. 2022ko urtarrilaren 27an bigarren lana aurkeztu da *Arrainak Bihotzean* deiturikoa, txotxongilo eta aktoreen arteko jolazaldi poetiko bat eginez.

# Olatz Gorrotxategi



www.olatzgorrotxategi.com  
aupa@olatzgorrotxategi.com  
616 945 813  
BIZKAIA

 @olatz.gorrotxategi  
 Olatz Gorrotxategi

Aktibo dauden ikuskizunak:  
· 43°13'44''N (2016. Berrestrenaildia 2018an)  
· Mierda de Ciudad (2021)

Dramaturga, sortzailea eta arte eszenikoen zuzendaria da. Eskarmentu handikoa antzerki pedagogia, ekoizpena eta kultur kudeaketan. Performing Arts Practicen lizentziaduna eta Arte Eszenikoetan eta Zuzendaritzan diplomaduna. Oinarrian ekoizpen propioko ikuskizunak egon arren, bai estatu mailako zein euskal konpainia askorekin lan egin du. Dramaturgiaren ikerketa, lengoai eszeniko berriak eta dokumentu-antzerkia biltzen ditu bere jardura artistikoan.

# Ostomila txotxongilo antzerkia



[www.titeresostomila.com](http://www.titeresostomila.com)


[titeresostomila@gmail.com](mailto:titeresostomila@gmail.com)

+34 697 434 684

GIPUZKOA

 @titeresostomila

 @ostomila

 @ostomilatxotxongilotaldea5417

Aktibo dauden ikuskizunak:

- Osaba Untxia eta Koiotearen abenturak (2016)
- Pura Cuina (2017)
- Olentzero eta Mari Domingi. Sorginaren bila. (2019)
- Alaia Galtzagorria. Mitoen bidaia (2021)

2015ean Ostomila Txotxongilo Taldea sortu zuten Zoak Tamarak eta Rubenek. Elkarrekin, txotxongiloak, musika eta ahozkotasuna nahasten dituen proiektua kudeatzen dute. Bere proiektuaren ardatzak, bere bi herriek, Euskal Herria eta Nikaragua batzen dituzten nortasuna eta kultura dira.

# Pantzar



www.pantzar.org  
pantzar@gmail.com  
699 340 894  
BIZKAIA

 @pantzartt  
 @PantzarTeatro  
 @PantzarTeatro  
 @PantzarTeatro

Aktibo dauden ikuskizunak:  
· Boli bili boli (2012), · Amilami (2014),  
· Kolorez Kolore / Colores Colore (2016),  
· Plisti-Plasta (2017), · Hitzak Txorabiatzen /  
Palabras Encantadas (2020),  
· Korri, Kuru, Korri! / ¡Corre, Kuru,Corre! (2021)

Pantzar konpainiak esperientzia luzea du familientzako objektu antzerkian. Bere lanak beti dira freskoak, dibertigarriak eta artistikoki nabarmenak. Bere lengoaia, nagusiki bisuala eta beti musikala, ez du beste ezeren antzik. Interpreteten nortasun eta trebetasun originalaren eta sortzaileen bikaintasunaren emaitza da. 2012tik, Pantzartek 9 ikuskizun ekoiztu ditu, 400 antzerki-emanaldi baino gehiago egin ditu, eta gaitasun handia erakutsi du kalitate artistiko handiko berezko hizkuntza eszenikoa garatzeko, objektuak, txotxongiloak eta teknika mistoak erabiliz gero eta errekonozimendu handiagoa jasotzen duena.

# Patata Tropikala Antzerki Laborategia



www.patatatropikala.com  
patatatropikala@gmail.com  
653 712 367  
GIPUZKOA

Aktibo dauden ikuskizunak:

- Azken eguzkilorea / La última flor del Sol (2015)
- Klean otso etxean uso / Nada es lo que parece (2016)
- Pirata Garrapataren abenturak / Las aventuras del Pirata Garrapata (2017)
- Bi azeri estu eta larri / Dos zorrillos en apuros (2018)
- Ehiztari ehizatua / El cazador cazado (2020)
- Niararen bidaia / El viaje de Niara (2021)
- Enperadorearen kondaira / La leyenda del emperador (2022)

Patata Tropikala Antzerki Laborategia 2008 urtean sortzen da. 11 antzezlan sortu dituzte ordutik: antzerkia, txontxongiloak, maskarak, itzalak eta hainbat teknika ezberdin ustartu dituzte, laborategi anitz eta aberatsa sortuz. Bere antzezlanetan ere garrantzi handia du beti isladatzen dute mezua. Horregatik bere 11 antzezlan ezberdinetan feminismoaz, naturaz, aldaketa klimatikoaz edo kontsumismoa bezalako gaiak landu dituzte, umorea eta irudi plastikoa ahaztu gabe. Antzerki familiarra egin dute bere produkzio guztietan, hau da heldu zein haurrak gozatu dezaten 2 urtetatik 101 urte bitartean.


# Picuentos




picuentos@hotmail.com

+34 653 632 984 / +33 651 277 807

BIZKAIA

 @picuentos

 @picuentos

Aktibo dauden ikuskizunak:

- Benjamino & Juanita (2018)
- Le Cirque Forain (2019)
- Na-más-té. Lambe-lambe (2019)

Picuentos Kolektiboa 2008an jaio zen, Mendebaldeko Afrikara egindako bidai batetik, kolektiboko kideen eta Afrikako populazioaren arteko elkartruke kulturala egiteko asmoz. Bidaiaren ostean, modu autodidaktikoan eta txotxongilolari maisuekin (Etcétera konpainia, Onírica Mecánica konpainia, Kaos Teatro konpainia, Ayelén Allende, Fantasías Mecánicas konpainia, Bernd Ogrodnik, Apu Teatro) ikasi zituzten marioneten eraikuntza eta manipulazioa, hala nola, ikuskizunen eszenaratzeko teknikak. Horrela 2017an Picuentos konpainia, Txotxongiloak, Ipuinkontalariak & Marionetak sortu zuten. Egun, marioneta ikuskizunak, ipuin narrazioa, irakurketarako animazioak eta material birziklatuarekin egindako marioneta eraikuntza tailerrak egiten dituzte. Picuentos *bidai konpainia* bat da.

# Rosa Martínez & Lagunak



[www.rosamartinez.eu](http://www.rosamartinez.eu)

[rosamaria.mtz@gmail.com](mailto:rosamaria.mtz@gmail.com)

686 772 648

BIZKAIA

 @rosammarfil

 @rosamartinezetalagunak

 @RosaMartinezteatrodetiteres

Aktibo dauden ikuskizunak:

- Itsasminez / Aventuras en el mar (2008)
- Erreka mari, azken lamina / La última lamina (2008)
- Etxean goxo / Hogar dulce hogar (2012)
- Nahia eta Neo / Nahia y Neo (2016)
- Noraren sekretua / El secreto de Nora (2020)

Rosa Martínezek bere konpainia sortu zuen 2000ean hurrei eta familiei zuzenduriko txotxongilo-antzerkian aritzeko asmoz. Ordutik ez dio antzetzeari utzi, eta hamabi lan baino gehiago estreinatu ditu urte hauetan. Guztietan antzerkia, txotxongiloak, musika, ipuinak eta neska-mutilen fantasia protagonistak direlarik. Mota ezberdinetako teknikak eta gaiak landu ditu urte hauetan, kultura-etxeetan, eskoletannahiz antzokietan. Euskadiko eta Nafarroako programazioetan aritu da gehienbat, beste autonomia-erkidegoko jarduera kultural ugarietan parte hartu badu ere; eta nazioarteko txotxongilo jaialdi batzuetara gonbidatua izan da, hala nola: Logroño (2021), Hendaia (2021), Tolosa (2020), Barañain, Bilbo, Chiclana de la Frontera, San Adrian, Sestao, eta abar.



# RubiK Theatre




[www.rubiktheater.com](http://www.rubiktheater.com)


[rubik.cia@gmail.com](mailto:rubik.cia@gmail.com)

605 716 215 / 652 268 744

GIPUZKOA

 @rubikcia

 @Rubik Cía

 @companyarubik3910

 @rubikcia

Aktibo dauden ikuskizunak:

- SaL 3.5 (2015), · Nº IV “La fiesta de la vida se celebra de diversas formas” (2016),
- Web Important People (2018),
- Babesleku arrotzak eta animalia bakartien hotsak (2019),

RubiK Theater 2013. urtean sortu zen, Kataluniaren eta Euskal Herriaren artean, eta bertan behin betiko kokatu zen 2016.ean. Estitxu Zaldúa eta Juanjo Herreroren elkartze artistikotik jaio zen. Antzerki Fisiko eta Bisualeko espezialitateko lizentziatuak dira Institut del Teatre-n. Bere prestakuntza dantzan, keinuan, testuan, objektuen manipulazioan eta biomekanikan oinarritzen da. Keinu zehatz baten bila lan egiten dute eta mugimenduan, gorputzaren, hitzaren, espazioan eta bere konposizio plastikoan sakontzen dute, dramaturgia propioa duen arkitektura eszenikoa sortzeko. Hainbat artistarekin elkarlanean ari dira, diziplina anitzeko topagunea, plurala eta lengoai berriak aztertzeko irekia sortuz. Ikusmenean, poetikan, jendeari sumatu, ulertu eta sentitzeko eskaintzen zaion espazioan datza garrantzia.




# Taun Taun Teatroa



tauntaun@blogspot.com  
tauntaunteatro@gmail.com  
670 224 209  
GIPUZKOA

 @TaunTaunTeatroa

 @tauntaun943

Aktibo dauden ikuskizunak:  
· TINGLAUA (2020)

Taun Taun Teatroa 1987an jaio zen helburu garbi batekin: txotxongiloen inguruko jarduera bultzatzea ikusle helduei zuzenduta. Txotxongiloen antzerki, objektuen antzerki, ikusizko antzerki, antzerki alternatibo, edozelan deitzen dela ere, ezinbesteko zerbaitera eramaten ditu: antzerkiaren berezko definiziora, arte gisa duen berezitasunera, esentziara.


# Taupada Antzeztaldea




taupada0@gmail.com

656 41 66 77

GIPUZKOA

 @taupada

 @taupada

Aktibo dauden ikuskizunak:




- Argitxo (2021)
- Zinemakopa (2022)

Taupada antzeztaldea 1977ko udazkenean sortu zen Elgoibarko herrian. Ordudanik euskara eta kultura suspertu eta bultzatzen saiatu dira, etenik gabe. Batipat euskara hutsean eginiko teknika anitzek hogeita hamazortzi antzezlan dituzte, haien ekimen honen lekukorik onenak.

# Teatro Panta Rhei Antzerkia



www.teatropantarhei.com  
konekta@teatropantarhei.com  
656 789 513  
ARABA

 @teatro panta rhei antzerkia  
 @pantarhei.teatro  
 @Pantarhei.teatro

Aktibo dauden ikuskizunak:

- Auzokideak / Compañeres de barrio (2012)
- Tira Aurrera! / Corre Payasa Corre (2016)
- Noa Uy Uy Uy (2019)
- Gorbeiaeren taupadak (2020)
- Naturaren Sekretua (2021)
- Izarren hartza / La osa estelar (2022)

Panta Rhei 1987an jaiotako sorkuntza eta ikerketa eszenikorako konpainia da. Objektu edota txotxongiloaren esperimantazioa euren ikerketa lanaren ardatza da. Egun, publikoen enkontruen esperientzia eta dinamizazioaren inguruan dabilta lanean, ez-ohiko espazioetan diziplina anitzeko proposamen artistikoekin. Murua (Zigoitia, Araba) dute bizi leku, Gorbeiaeren oinetan eta horregatik, natura eta nekazal ingurunea dira bere egintzaren klabetako batzuk. Bideart Eszena Zigoitia eta Festikaleren ekoizpena, zuzendaritza eta antolaketa dira bere lanaren beste lerro batzuk. Gaietik, Artea eta Natura lerroa sendotuz doaz.

# Teatro Titeritanto



<https://titeritanto.wixsite.com/talleres>

titeritanto@gmail.com

+34 623 005 612

BIZKAIA

 @titeritanto

 @titeritanto

Aktibo dauden ikuskizunak:

- Bartolo el árbol que creció solo (2019)
- Max y Félix y los paisajes monotemáticos (2020)
- La mesa del conflicto (2022)

Jatorriz, Teatro Titeritanto 2006an jaio zen Erdialdeko Amerikan La Macabra ekoizpenak izenarekin. 2011an Estudios Guturales Ideas en Evolución izena izan zuten, baina azkenik Kaleidoskopio Elkartearen babesean Teatro Titeritanto bezala agertu ziren. Euren proposamena ludiko sortzailea da, txotxongilo eta marioneten mundutik abiatuta, ikuslearen imaginariora hurbiltzea eta parte hartzea bilatzen dute. Egun hiru lagunek osatzen dute Teatro Titeritantoren lan taldea, txotxongilo eta arte eszenikoen alorrean esperientzia eta ibilbide desberdinak biltzen dituztela.

# Tira ta Floja



www.tiratafloja.es  
tirafloja@gmail.com  
608 099 403  
BIZKAIA

 @tirataflojabilbao

 @TirataFloja

Aktibo dauden ikuskizunak:

- Martin Txiki y Basajaun (2019)
- Valente, el caballero repelente (2020)
- La princesa que quería ser un caballero (2021)

Tira ta Floja 1988an jaio zen Bilbon, pertsonai batzuen sorkuntza (panpinak), publiko guztiarentzat zuzendutako kale antzerkiko ikuskizuna bilakatu zenean. Honen ostean, kale antzerkiko beste ikuskizun batzuk etorri ziren. Sorkuntza plastikoa arte eszenikoetan aplikatuak eta ebentoen munduak Tira ta Flojaren bidea moldatu dute gaur egun arte. Izaki eta mundu fantastikoak sortzeko beharrak, txotxongiloekin jolastera eraman ditu, bai beraientzat zein beste konpainia batzuentzat. *Euskal mitologia* edota *Dragoiak, izaki fantastikoak* erakusketak bere tekniken trebakuntza eta ibilbide luzearen isla dira.

# Ttipia



[www.ttipia.eus](http://www.ttipia.eus)


[info@ttipia.eus](mailto:info@ttipia.eus)

945 24 38 28

ARABA

 @ttipiakultura

 @ttipia kultura

 ttipia kultura

Aktibo dauden ikuskizunak:

- Ganbaran (2017)
- PLAST & CO (2022)

Umorezko ikuskizunak, bakarrizketak eta haurrentzako nahiz helduentzako antzerki-lanak ekoizten eta banatzen dituen Gasteizko ekoizlea. 2017az geroztik, txotxongiloen familiarako ikuskizunak egiten dituzte. *Ganbaran* ikuskizunarekin hasi ziren, 2019an *Egur Taupadakekin* jarraitu zuten eta 2022an *PLAST & CO* estreinatu zuten.



# Toni La Sal



[www.antzekizuna.wix.com/tonilasal](http://www.antzekizuna.wix.com/tonilasal)


[anttonbastero@gmail.com](mailto:anttonbastero@gmail.com)

659 560 696

BIZKAIA

 @tonilasal

 @anttonbastero

 @anttonbastero7424

 tonilasal

Aktibo dauden ikuskizunak:

- Ipuin lapurra (2008)
- La famiglia Toronbole (2015)
- Txotxongilo bertsolariak (2019)
- Teleipuin berria (2020)

Antton Bastero euskal txotxongilolariak, frutaekin kamioia bere aurretik pasatzerakoan, bere izkutaketik (Antzekizuna Ginol Taldea (1980) -ren teatrino barrutik) ateratzea erabakitzen du 2006. urtean. Pentsatu gabe buruan kasko bat jartzen du, Interneten bidez garbiketarako gurditxo bat eskatzen du eta bere lehen mupettak-muntaia sortzen du: *Birusak erasoan!!!* eta holan Toni La Sal pertsonaia bihurtzen da. Gero beste ikuskizun batzuk surtu zituen: *Ipuin lapurra*, *Teleipuin berria*, *La famiglia Toronbole* eta *Txotxongilo bertsolariak*, besteak beste.



# Txotxongillo Taldea



txotxongillo@gmail.com  
689 80 85 92  
GIPUZKOA

Aktibo dauden ikuskizunak:

- Erreka Mari (1978)
- Itsasminez (1990)
- Galtzagorriak (1994)
- Elurrezko panpina (2010)

1971an jaio zen Enkarni Genua eta Manolo Gomezen eskutik, euren lana haur eta publiko familarrera zuzenduta dagoelarik. 20 ikuskizun estreinatu, beti euskaraz, 25 liburu editatu (ipuinak eta material didaktikoa) eta 20 disko plazaratu dituzte. 1982an Tolosako Nazioarteko Txotxongiloen Jaialdia sortuko zuen lantaldearen parte izan ziren. Hainbat nazioarteko txotxongilo jaialdietan parte hartu dute, bai Espainiako estatu mailan, zein kanpoan. Bere lanagatik hainbat sari jaso dituzten, azken urteetan MAX Saria Manolo Gomezentzat Teatro Estudio de San Sebastian-en egindako zuzendaritzagatik (2021); eta, Eusko Ikaskuntzak banatzen dituen Manuel Lekuona Saria (2021) Encarni Genuarentzat kultur hedapenean egindako lanagatik.

# Xabi Larrea



[www.xabilarrea.net](http://www.xabilarrea.net)

[info@xabilarrea.net](mailto:info@xabilarrea.net)

615 745 504

BIZKAIA

 @XabiLarrea

Aktibo dauden ikuskizunak:

- Mr.Frack (2001)
- UP!!! (2010)
- Pin Pang (2022)

Bristol (Inglaterra) eta La Habanako (Kuba) zirko eskolen arteko elkarlanetik sortutakoa, 2000 urtean hasi zuen bere ibilbidea eta ordutik sortzen dituen ikuskizun propioetan, umorea, zirkoa, antzerki fisikoa eta publikoaren konplizitatea dira ezaugarri nagusiak. Publiko guztientzat aproposak diren ikuskizun bisualak, irudimentsuak eta parte hartzaileak.

# Zirkun Zirko



[www.zirkun.com](http://www.zirkun.com)

[izaskun-kun@hotmail.com](mailto:izaskun-kun@hotmail.com)

656 75 07 93

BIZKAIA

 @Zirkun.com

 @Zirkun.com

 @Izaskun rueda

Aktibo dauden ikuskizunak:

· Bidaibizitzen (2016)

Zirkun Zirko 2009an sortu zen Izaskun Rueda gasteiztarraren eskutik. Munduko eskola desberdinetan (Santiago de Chile, Toulouse, Barcelona...) formatu ostean eta Madrileko Carampa zirko eskolan arte zirkenseen profesional gisa titulatu ondoren, Izaskun Rueda Euskal Herrira itzuliko da, ikasitako guztia partekatzeko eta, horretarako Getxoko Zirkun Zirko Eskola sortu du. Orduetik, txotxongilo eta zirku ikuskizunak sortu eta zirkuko ikastaroak ematen ditu.

# Zurrunka Teatro



[www.zurrunkateatro.com](http://www.zurrunkateatro.com)  
[zurrunkateatro@gmail.com](mailto:zurrunkateatro@gmail.com)  
695 714 699  
ARABA

Aktibo dauden ikuskizunak:

- Itzal titere laborategiak (2016)
- AIOKO (2019)
- GURE KANOA (2022)

Zurrunka Teatro txotxongilo-antzerkian eta itzalen antzerkian espezializatutako konpainia arabarra da. Edertasunez, poesiaz eta sultitasunez, publiko guztientzako gogoeta-agertokiak sortzen dituzte, bere gizartearen egungo arazoak eta kezak islatzeko eta transmititzeko duten konpromisoaren ondorioz. Artean, sormenean eta arte biziek gizarte-kulturari egiten dioten ekarpenean sinesten dute.

Baliabide interesdunak



**TOPIC**

Museoa eta Tolosako Nazioarteko Txotxongiloen Zentroa  
Euskal Herria Plaza, TOLOSA 20400  
[www.topic.eus](http://www.topic.eus)

**TXOTENA GUNEA**

Espazio soziokulturala  
Txotena 21, BILBAO 48004  
[www.txotenagunea.eus](http://www.txotenagunea.eus)

**UNIMA Euskal Herria**

[www.unima.es/unima-euskal-herria/](http://www.unima.es/unima-euskal-herria/)  
[presiunimaeh@gmail.com](mailto:presiunimaeh@gmail.com)  
[secreunima@gmail.com](mailto:secreunima@gmail.com)

Ondorioak






Mapeo honetan EAEko eremuan txotxongilo eta objektu antzerkian euren jarduera aurrera eramaten duten 52 konpainia eta profesional aurkitu dira. Guztiekin kontaktuan jarri gara eta 46 eragileen datuak bildu ditugu. Gainerakoak ez digute helarazi daturik denbora faltagatik edo martxan dagoen proiekturik ez dutelako. Pertsona orok interesa agertu dute proiektuarengan eta bertan agertzearen aldeko asmoa, orain edota aurrerago.


Orokorrean esan daiteke sektorearen ezaugarri nagusietako bat aniztasuna dela, ohikoa txotxongilo eta objektu antzerkian, hasieran aipatu dugun moduan, bai hemen zein edozein marko geografikotan. Aniztasun hori nabaria da bai proposamen artistikoetan zein beste alor batzuetan, hala nola ikuskizunen antolakuntza, kudeaketa edota banaketan.

Aniztasun hori erabiltzen diren tekniketari islatzen da baita ere: harizko txotxongiloak, eskularruzkoak, bunraku, barilak, bokoiak, maskara antzerkia, itzalena, paperezko antzerkia, lambe lambe... Bestetik esan beharra dago profesioanalek eta konpainiek diziplina arteko nahasketa gustoko dutela, horrela txotxongilo eta objektu antzerkia nahasten da aktore antzerkia, zirku, dantza, clown, dokumentu-antzerki edo diziplina antzeko piezekin. Honek agerian uzten du sektorearen aberastasun artistikoa eta arte eszenikoen barruan lengoia berriak sortzeko ahalmena, hala nola publiko guztiarentzat aproposak diren sorkuntza-lan interesgarri eta erakargarriak sortzeko gaitasuna.


Konpainien tamainan ere desberdintasun handiak aurkituko ditugu, badira pertsona bakarrak osatutako konpainiak eta baita 10 kidek baino gehiagok osatzen duten azpiegitura handiko taldeak. Konpainiarik handiena 13 kideek osatutako dago.



Izaera juridikoari dagokionez ere, esan daiteke heterogeneoa dela. Lagin honetan ikus daitezke enpresak, kooperatibak, pertsona autonomoak, elkarteak eta baita ere, erretiroa hartu duten profesionalak baina sektorearekin lotura handia dutenak, hala nola konpainia sortu berriak oraindik izaera juridikorik ez dutenak.



Generoari dagokionez, emakumeen parte hartzea zertxobait handiagoa da gizonena baino eta emakumeen presentzia handia dago sorkuntza eta zuzendaritza alorretan.



Datu hauek esan nahi digutena zera da: gure lurraldean konpainia eta profesional asko daudela sektore honetan lan egiten. Estatu mailan, txotxongilo eta objektu antzerkian jarduten diren konpainia kopuruari dagokionez, gurea bosgarrena da, TITEREDATAk (2021) argitaratutako *Estudio sobre el teatro de títeres, visual y de objetos* ikerketaren arabera.

Ildo honetatik, interesgarria da baita ere, EAEko eremuan urtero ospatzen diren jaialdiek egiten duten lana goraiatzea – direktorioaren hasieran aipatzen genituen-, eta baita ere, Tolosako TOPIC eta Euskal Herriko UNIMArena.

Hala ere, beharrezko dugu sektorearen antolaketa handiagoa eta sinergia berrien sorrera, arte eszenikoen adar honen sektoreko eragileek elkarren berri izan dezaten. Honen harira, direktorio honen sorrerak hasitako lana jarraitzeko egin daitezkeen hainbat ekintza identifikatu dira, sektorea sendotzen lagundu dezaketenak. Hauen artean aipa daitezke: sektoreko eragileen beharren eta balorazioen ikerketa egin; zirkuitu eta erakusketa espazioen direktorioa; eta Euskadiko antzerki eta objektu antzerkiaren sinposioaren antolaketa, besteak beste.

Bestetik, profesionalen topaketarako ingurune aproposak sortzeko beharra nabarmendu nahi dugu. Horregatik, garrantzitsua da galderak, jakintzak, esperientziak eta proiektuak partekatzeko lekuak izatea. Bilboko TXOTENA GUNEA horretan dihardu. Pagoa Hezi Elkarteak kudeatutako gunea da, beste lau elkarterekin batera -Artekale, Entrenando emociones, Accidental Company eta SOVINT.ONGD-, guztiak arte eszenikoen alorrekoak zein gizarte ekintza inguruakoak.

Ilido honetatik, aipatu nahiko genuke txotxongilo eta objektu antzerkiak duen ahalmena bitartekaritzan eta ikus-entzule berrien sorreran. Izan ere, mapeoa osatzen duten profesional eta konpainien erdiak, formazio eta gizarte interbentzio jarduerak dituzte, txotxongilo eta objektuen bidez.

Bukatzeko, ondorio gisa, espero dugu direktorio hau sinergia berriak sortzeko tresna izatea. Izan ere, lan honetan jardun dugun bitartean harreman berriak sortu dira sektorearentzako garrantzizkoak izan daitezkeenak. Bestetik, uste dugu horrelako ekimenek alor hau indartu dezaketela eta baliagarriak izan EAetik kanpo euskal txotxongilo eta objektu antzerkia sustatzeko. Azkenik, sektore honek euskal sorkuntzan duen pisua eta etorkizunean ekarpenak egiteko izan dezakeen ahalmena nabarmendu nahi genituzke.

Bilbo, 2022ko abendua.





**BILBAO**



**BILBOKO  
NAZIOARTEKO  
TXOTXONGILO  
JAIALDIA**

**FESTIVAL  
INTERNACIONAL  
DE TÍTERES DE  
BILBAO**

